

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3917

AGINDUA, 2013ko irailaren 6koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunak eta behin-behineko langileak Etika eta Jokabide Kodeari banaka atxikitze prozedurari buruzkoa.

Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea onartzen duenak, 1. eranskineko 18.2 artikuluan ezartzen duenez, kode honek helburu dituen kargu publikodunak eta parekatuak izendatzen direnean, tresna honen eduki osoa banaka atxiki beharko dute nahitaez karguaz jabetu aurretik, eta kargu publikodunak eta parekatuak ezingo dira karguaz jabetu kodea aldeztu aurretik banaka atxiki gabe. Karguaz jabetzeko izapiderik aurreikusi gabeko karguak baldin badira, izendapenaren aurretik atxiki behar dute kodea.

Beraz, banan-banan zehaztu behar da zer unetan eska daitekeen atxikimendu hori, eta batez ere, ezinbestekoa da argitzea zer ondorio dituen, eta argi utzi behar da ezin duela ondorio juridikorik eduki kodeak helburu dituen pertsonak izendatzeko lege-araubidean.

Funtsezkoa da kontuan edukitzea kodearen testuingurua esparru juridikotik kanpokoa dela, eta hori dela hura ulertzeko balio garrantzitsuenetako bat; horregatik, ez da inola ere ulertu behar kodea onartu ondoren ezinbesteko lege-baldintza denik karguaz jabetu aurretik kode horri banaka eta esplizituki atxikitzea eta kodeari atxiki gabe ezin denik izendapena burutu. Izan ere, horrek lege orokorretan ezarritako araubide juridikoa aldatzea ekarriko luke, adibidez Jaurlaritzaren Legean ezarritakoa, eta hori ez da inola ere aldatu nahi.

Aitzitik, ulertu behar da maila etikoko betebeharra dela kodearen eduki osoari banaka eta aurretik atxikitze eskakizuna eta, nolatan ere, horretarako, interesa duenari beharrezko mekanismoak jarri behar zaizkiola atxikimendu hori egiteko eta, azken batean, bere borondatea adierazteko. Era berean, ezarritako epean ezin izan bada atxikimendua egiterik izan karguaz jabetu aurretik, karguaz jabetu ondoren atxiki ahal izateko aukera izan behar du, eta hala, haren ondorioak erabat baliozkotu ahal izango dira. Halakoetan, ezinbestean, norbait behar bezala izendatua izan bada aurrez kodeari atxiki gabe, kodeak ezarritakoaren eraginpean geratuko da, eta, maila etiko horretan, kargutik kendu beharko litzateke.

Azkenik, Etika eta Jokabide Kodeko 18.5 artikulua arautzen du Herri Administrazioaren arloko eskumena duen saileko titularrak den pertsonaren aginduz zehaztuko dela banaka atxikitze prozedura eta haren izapideak.

Hori horrela, eta Herri Administrazio eta Justiziako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 3.2.f) artikuluan sailaren titularrari ematen zaion eskumena baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren I. eranskineko 18.2 artikulua

arautzen duenarekin bat etorriaz, kode horren helburu diren kargu publikodunak eta parekatuak izendatzen direnean, izendatutako pertsonak kodearen eduki osoa banaka atxiki behar dutela, nahitaez, karguaz jabetu aurretik, agindu honetan ezartzen den prozedura betez.

2. artikulua.— Jaurlaritzako kideek egindako izendapen-proposamen orotan, kodearen eraginpeko goi-kargudun baten edo eraginpeko behin-behineko langileren baten izendapena proposatzen bada, proposatutako horrek berariazko adierazpen bat egin beharko du, Etika eta Jokabide Kodeari atxikitzen zaiola adieraziz; eta baliozkoa izango da baldin eta gerora izendapena formalizatzen bada.

3. artikulua.— Administrazio-kontseiluek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako, sozietate publikoetako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko bestelako erakunde instrumentaletako kudeaketa-organo gorenak goi-kargudunak edo zuzendaria izendatzen dituztenean, lehen aipatutako irizpideak hartuko dituzte kontuan, dagokien erabaki-organoen funtzionamendu-sistemari egokituta, eta beraz, izendapen-proposamenekin batera, proposatutako pertsona horren berariazko adierazpena aurkeztu beharko da, Etika eta Jokabide Kodeari atxikitzen zaiola dioena. Baliozkoa izateko, dagokion enplegu-harremana formalizatu beharko da gerora.

4. artikulua.— Goi-kargudunekiko edo zuzendariekiko lotura goi-mailako zuzendaritzako lan harreman berezi baten bidez egiten bada, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea onartzen duenaren II. eranskinetako edukia sartu beharko da kontratuaren klausuletan. Eranskin horretan, kodeari atxikitze baldintzak zehazten dira.

5. artikulua.— Eraginpeko langilea aldeztu aurretik Etika eta Jokabide Kodeari atxiki gabe egin badira aurreko artikuluetan aipatzen diren izendapena edo kontratazioa, dagokion saileko titularrak edo dagokion erakunde instrumentaleko zuzendaritzak ahalegina egingo du interesduna kode horri atxiki dakion gehienez ere 15 eguneko epean, baldintza hori bete gabe izendapena egin den egunetik zenbatzen hasita. Halakoetan, berariaz kodeari atxikitzen zaiola dioen adierazpena aurkeztu denean, interesdunaren egoera erabat baliozkotuko da, ondorio guztietarako.

Ezarritako epe horretan Etika eta Jokabide Kodeari atxikitzen ez bazaio, ulertuko da interesdunak ez duela Etika eta Jokabide Kodea betetzen, eta Etika Publikorako Batzordeari berehala prozedura bat abiarazteko eskatuko zaio, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta. Batzorde hori hura izapidetzen hasiko da, eta hala badagokio, dagokionari kargua uzteko edo kontratua baliogabetzeko proposatuko du.

6. artikulua.— Izendapenerako proposatutako pertsonak Etika eta Jokabide Kodearen atxikimendurako dokumentua sinatzeak berekin dakar pertsona horrek izendapen-proposamena onartzea.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu dakiok Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko auzietako epaitegi egokian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 6a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.